

TREBAKUNTZA 2015-01: BIHURTU, HAUTATU...

OHARRA: *asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.*

OHIKO AKATSAK

1. * Etxeko seme zaharrena **apaiza egin** da.
2. * Alaba **neskame lez** joan zen ondoko herri batera.
3. * Unibertsitatean nirekin ikasi zuen lagun bat **hautatu dute alkatea**.
4. * Konturatu orduko **gaua eguna bilakatu** da.
5. * Alkatetzan dagoenetik adiskideak **etsaiak bihurtu** zaizkio.
6. * Udaletxeko lanpostua utzi eta **irakaslean bihurtu** zen.

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

Joan, egon, sartu, jarri, gelditu, egin, hautatu, izendatu, bihurtu, bilakatu eta antzeko aditzekin predikatua mugagabea izango da:

“Ura **ardo** bihurtu zuten”.

Dena dela, hori ez da beti horrela. Izan ere, izena beste elementu batekin badoa (adjektiboa, adibidez), artikulua behar du.

“Emakumerik **ederrena** bihurtu zen”.

Udalerr i Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99

Beraz:

1. Etxeko seme zaharrena **apaiz egin** da.
2. Alaba **neskame joan** zen ondoko herri batera.
3. Unibertsitatean nirekin ikasi zuen lagun bat **hautatu dute alkate**.
4. Konturatu orduko gaua **egun bilakatu** da.
5. Alkatetzan dagoenetik adiskideak **etsai bihurtu** zaizkio.
6. Udaletxeko lanpostua utzi eta **irakasle bihurtu** zen.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

Telefonoz: 94-6279195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

U d a l e r r i E u s k a l d u n e n M a n k o m u n i t a t e a

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99